




## EAEko industria ekoizpena %5,4 areagotu zen

Industria produkzioaren indizea  
Urte bakoitzeko abendua




Iturria: Eustat.

Abenduan, EAEko industriaren produkzioa %5,4 hazi zen, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. IPIk hilabete horretan 2007tik inoiz lortu duen baliorik altuena da. Era berean, 2023 urte osoko balantzea industria jarduera %0,3ko hazkundearekin itxi zen.

## EAEko ekonomiaren termometroa 83,6an kokatu da

EAEko ekonomiaren termometroa  
Indizea




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Urtarrilean, EAEko ekonomiaren termometroak zertxobait hobera egin zuen eta 83,6 puntutan kokatu zen, hazkunde leuneko eremuan mantenduz. Hain zuzen ere, bost hamarren igo zen aurreko hilabetearen aldean, industriak emaitzak hobetu zituelako eta zerbitzu-ek zein eraikuntzak joera positiboari eutsi ziotelako. Halaber, enpleguaren bilakaera positiboa izan zen.



## Txikizkako merkataritza %0,3 hazi zen EAEn

Txikizkako merkataritza guztira  
Urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoa. Indizea




Iturria: Eustat.

Eustaten arabera, **2023ko laugarren hiruhilekoan EAeko txikizkako sektorearen salmentak %0,3 handitu ziren aurreko urteko aldi beraren aldean.** Hazkunde hori elikadurako produktuen salmentan (%0,9) eta gainerako produktuetan (%1,1) oinarritu zen, automobilgintzarako erregaiaren sektorean izandako beherakada (-%8,4) konpentsatu baitzuten.

## Euskadin 3.137 enpresa sortu ziren iaizko urtean zehar

EAEn eratutako enpresak  
Urte bakoitzeko urtarriletik abendura



Iturria: INE.

**2023an, guztira, 3.137 enpresa eratu ziren Euskadin, hau da, 2022an baino %2,7 gehiago.** Erregistro hori aurreko urteetan lortutakoaren oso antzekoa da, 2020an izan ezik, urte horretan hasi baitzen pandemia. Enpresak eratzeko jarri zen kapitala 180 milioi eurotik gorakoa izan zen.